

4.- Diru-Iturriak

Bezero potentzialen ordainketa prestutasuna hainbat faktore eta baldintzaren arabera izango da, horien artean prezioen egitura, zerbitzuaren ezaugarriak eta merkatuan dagoen lehia.

Zenbat ordaintzeko prest egongo lirateke?

Bidaia agentzia ekonomiko baten bila doazen bezeroek, oro har, agentzia tradizionalek eskaintzen dituzten prezioak baino merkeagoak diren tarifak espero dituzte.

- **Hegaldiak:** Ryanair, EasyJet edo Vueling bezalako hegaldien konpainiek eskaintzen dituzten hegaldiak direla eta, bezeroek 30€ eta 150€ arteko tarifei ordaintzeko prest egon daitezke, ibilbidearen, erreserba egiteko aurretiko denboraren eta aukeratutako tarifa-motaren arabera.
- **Hotelak:** **Ibis Budget**, **B&B** eta **Easy Hotel** kateekin lan eginez, bezeroek prezio eskuragarriak ordaintzea espero dute. Prezioak 20€ eta 80€ artean aldatzen dira, helmuga eta denboraldiaren arabera.
- **Irteerak:** **Sandemans New Europe**, **Withlocals** eta **Viator** plataformetan egindako ekintzen tarifak 10€ eta 50€ artean aldatzen dira pertsona bakoitzeko, ekintza bakoitzaren eta iraupenaren arabera.

Nola ordaintzeko prest egongo lirateke?

Ordaintzeko modurik ohikoenak hauek izango lirateke

- **Online ordaintzea (kredituko/débito txartela):**
Bezeroek ordaindu ahal izango dute segurtasun eta erraztasun guztiekin, kreditu edo txartel bidez.
- **Promozio-prezioak eta deskontuak:**
Bezeroek interesa izango dute promozioak edo deskontuak eskaintzen badira, batez ere lehenengo erosketa edo talde erreserba bat egitean.